

Ordiziako Udala

2020IOSB0015

Ordizian, **2020ko urriaren 29an** Udalbatzak, ohiko deialdian, OSOKO BILKURA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

En Ordizia siendo el día **29 de octubre de 2020** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garciandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jesus M.Lariz Orbezabal	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Lander Mujika Onandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ-PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Juan Ignacio Alonso Arratibel	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

KONTUHARTZAILEA:

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA IRTEERAK:

- Santamaria jauna eguneko gai-ordenaren 5. puntuan azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIK:


EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

GAI ORDENA

- 1.- 2020ko urriaren 1ean egindako ohiko osoko bilkuraren zirriborroa onartzea.
- 2.- 2020ko urriaren 13an egindako aparteko bilkuraren zirriborroa onartzea.

ORDEN DEL DIA

- 1.- Aprobación del Acta del Pleno de sesión ordinaria celebrada el 1 de octubre de 2020.
- 2.- Aprobación de Acta del Pleno de la sesión extraordinaria celebrada el día 13 de octubre de 2020.



Ordiziako Udala

2020IOSB0015

- 3.- Iraileko alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 4.- B.B.A. oposizioko zinegotziaren jarduera pribaturako bateragarritasuna aitortzea.
- 5.- Azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeria deusezteko nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala onartzea.
- 6.- Aurrekontuaren aldaketa. Kreditu gehigarrien onarpena.
- 7.- Inbertsioak finantzatzeko mailegua kontratatzea.
- 8.- Goiekiren kapitala handitzea eta Ateak Ireki proiektuarentzat ekarpen berezia egitea onartzea.
- 9.- Taxien tarifak onartzea 2021 urterako.
- 10.-Ekintza humanitarioentzako larrialdietarako laguntza onartzea. (OSASUN SOROSPENA CHIOS UHARTEAN).
- 11.- Ekintza humanitarioentzako larrialdietarako laguntza onartzea. (LARRIALDIA MOIRAN)
- 12.- Galde-erreguak

- 3.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de septiembre.
- 4.- Declaración de compatibilidad para actividad privada del concejal de la oposición B.B.A.
- 5.- Aprobación de la declaración institucional para el 25 de noviembre, día internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres.
- 6.- Modificación de presupuesto, aprobación de créditos adicionales.
- 7.- Contratación de préstamo para la financiación de inversiones.
- 8.- Aprobación de la ampliación de capital de Goieki y aportación extraordinaria proyecto Ateak Ireki.
- 9.- Aprobación de las tarifas taxis para 2021.
- 10.- Ayuda para acciones humanitarias de emergencia. (OSASUN SOROSPENA CHIOS UHARTEAN)
- 11.- Ayuda para acciones humanitarias de emergencia. (LARRIALDIA MOIRAN)
- 12.- Ruegos y preguntas

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

- .- Majori Kiroldegiaren kudeaketa-moduari buruzko hausnarketa egitea.
- .- Zinegotzi kargua hartzea.
- .- Hurrengo bilerarako bat-bateko itzultzailea.


- .- Reflexión sobre la gestión del Polideportivo Majori.
- .- Toma de posesión como Concejal.
- .- Traductor/a para la próxima reunión.

GORABEHERAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:00etan.

AMAIERA: 19:45ean.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2020ko urriaren 1eko ohiko osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2020ko urriaren 1eko ohiko osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 1 de octubre de 2020.

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 1 de octubre de 2020.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

2.- 2020ko urriaren 13ko aparteko osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2020ko urriaren 13ko ohiko osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

2.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 13 de octubre de 2020

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 13 de octubre de 2020.


Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 15 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)



Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Iraileko Alkatetza dekretuen berri ematea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Jakinarazi du 3. orrialdean ebazpen gisa baliogabetutako 10 dekretu zerrendatzen direla. Horri dagokionez, argitu du programak automatikoki dekretu-zenbaki bat eta data bat esleitzen dizkiela prestatzen ari diren dekretuei, eta arrazoi batengatik edo besteagatik aldi jakin batean erabiltzen ez badira, baliogabetu egin behar direla, beste zenbaki bat hartzen dutelako. Horixe gertatu da aipatutako dekretuekin.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- B.B.A. oposizioko zinegotziaren jarduera pribaturako bateragarritasun-adierazpena.

Proposamena

2019ko uztailaren 23ko ezohiko bilkuran, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 33. artikularekin bat etorriz, osoko bilkurak oposizioko indar bozkatuenari zinegotzi baten dedikazio eksklusiboa eta dedikazio horri esleitutako ordainsaria bermatzea erabaki zuen.

Akordio horretan oinarrituta, alkateak dekretu bidez izendatu zuen EAJ-PNV taldeak proposatutako zinegotzia.

2020ko urriaren 1etik aurrerako eraginarekin, izendatutako zinegotziak lan-arrazoiengatik dedikazio horri uko egiten diola jakinarazi du, eta <https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAC27HE.ZNEr>

3.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de septiembre

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde

Informa de que en la página nº. 3 se relacionan 10 decretos anulados como resolución. Aclara al respecto que el programa asigna automáticamente un número de decreto y fecha a los decretos que se preparan y que si por un motivo u otro no se utilizan en un determinado tiempo hay que proceder a su anulación porque cogen otro número. Es lo que ha ocurrido con los citados decretos.


4.- Declaración de compatibilidad para actividad privada del concejal de la oposición B.B.A.

Propuesta

En sesión extraordinaria de fecha 23 de julio de 2019, y de conformidad con el artículo 33 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, el Pleno acordó garantizar a la fuerza más votada de la oposición, la dedicación exclusiva de un concejal así como la retribución asignada a dicha dedicación.

En base a dicho acuerdo el Alcalde designó mediante decreto al concejal propuesto por el grupo EAJ-PNV.

Con efecto 1 de octubre de 2020, el concejal designado ha comunicado su renuncia a dicha dedicación por motivos laborales y la formación política propone la



Ordiziako Udala

2020IOSB0015

alderdi politikoak proposatu du Bittor Bolinaga Alzelai izendatzea oposizioko zinegotzi, ehuneko 80ko dedikazio partzialarekin.

Kontuan izanda idazkariak 2020ko urriaren 26an egindako txosten juridikoa, izendapen hori egiteko prozedurari buruzkoa.

Izendatu beharreko zinegotziak ordaindutako jarduera pribatu bat egiten duenez, Toki Erakundeen Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 13.3 artikulua araberak, osoko bilkurak bateragarritasun-adierazpen formal bat egin behar duela kontuan izanda.

Bittor Bolinaga Alzelai jaunak 2020ko urriaren 26an bidalitako idatzia kontuan izanda; bertan adierazten da, zinegotzi gisa jardutea ez dela bateraezina une honetan betetzen ari den jarduera pribatuarekin, eta ez diela inola ere kalterik egingo korporazioko karguari dagozkion zereginen,

Hori ikusita, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1) Bittor Bolinaga Alzelai oposizioko zinegotziaren dedikazio partziala bateragarria dela aitortzea gaur egun bere enpresan egiten duen jarduera pribatuarekin.
- 2) Dedikazio partziala ehuneko 80koa izanik, zinegotzi karguari dagozkion zereginetan lehentasunez aritu beharko du; nolahi ere, bestelako lan batzuk ere egin ahal izango ditu baina horiek ezin izango diote kalterik eragin udalean duen dedikazioari.
- 3) Alkateari dagokio proposatutako zinegotziaren dedikazioa dekretu bidez izendatzea, eta osoko bilkurari emango dio izendapen horren berri.
- 4) Izendapen hori eta dedikazio horri esleitutako ordainsaria GAOn argitaratuko dira.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andrea

Bere txostenak jasotzen duena azaldu du, osoko bilkurak aitortu behar duen bateragarritasunari buruzkoa, oposizioak proposatutako zinegotziaren dedikazioa bateragarria izan dadin egiten duen jarduera pribatuarekin.

designación de Bittor Bolinaga Alzelai como concejal de la oposición con una dedicación parcial del 80 por ciento.

Visto el informe jurídico de la Secretaria de fecha 26 de octubre de 2020 sobre el procedimiento a seguir para dicha designación.

Dado que el concejal a designar realiza una actividad privada remunerada, por lo que de conformidad con el artículo 13.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las entidades locales, se requiere una declaración formal de compatibilidad por parte del Pleno.

Visto el escrito de Bittor Bolinaga Alzelai, de fecha 26 de octubre de 2020, en el que declara que la dedicación como concejal de la oposición a las tareas propias de su cargo no es incompatible con la actividad privada que en estos momentos ejerce y que no supondrá en ningún caso menoscabo de las tareas propias de su cargo en la corporación.

A la vista de ello, se propone la adopción del siguiente

PROYECTO DE ACUERDO


- 1) Declarar la compatibilidad de la dedicación parcial del concejal de la oposición Bittor Bolinaga Alzelai con la actividad privada que desarrolla actualmente en su empresa.
- 2) La dedicación parcial, cuantificada en un 80 por ciento, exigirá la dedicación preferente del mismo a las tareas propias de su cargo de concejal, sin perjuicio de otras ocupaciones marginales que en cualquier caso no podrán causar detrimento a su dedicación a la corporación.
- 3) Compete al Alcalde designar mediante decreto la dedicación del concejal propuesto, dando cuenta de dicha designación al Pleno.
- 4) Dicha designación así como la retribución asignada por tal dedicación será publicada en el B.O.G.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sra. Secretaria

Explica el contenido de su informe sobre la necesaria compatibilidad que ha de declarar el pleno para que la dedicación del concejal propuesto por la oposición sea compatible con la actividad privada que realiza.



Ordiziako Udala

2020IOSB0015

Alonso jauna

Bere botoa proposamenaren aurkakoa izango dela esan du, talde minoritarioak gehiengodunekin alderatuta desabantailan daudela uste duelako eta zentzu horretan tratu diskriminatzailea jasaten dutelako.

Bere ustez, politika profesionalizatzen ari da eta, gainera, ez dago oposizioko zinegotziaren dedikazioaren kontrolik.

Sukia andrea

Oposizioko zinegotziaren dedikazioa kontrolaezina dela adierazi du eta, horregatik, izendatu beharreko zinegotziak bere lan-agenda publiko egin dezala eskatu du, karguan betetzen duen dedikazioarekin.

Aranburu jauna

Alonso jaunari erantzun dio esanez ez dagoela ados talde minoritarioak diskriminatuta daudela esaten duenarekin, izan ere, udalaz gaindiko erakundeetako organoak begiratu besterik ez du, eta ikusiko du EAJ-PNV bere taldea ez dagoela ordezkaturik nahiz eta gehiengoa duen alderdia izan.

Dubreuil jauna

Oposizioko zinegotziaren dedikazioa kontrolatzea proposatzen den bezala, gobernu-taldeko karguetarako ere kontrol bera eskatu beharko litzatekeela adierazi du.

Sr. Alonso

Dice que su voto será contrario a la propuesta porque considera que los grupos minoritarios están en desventaja respecto a los mayoritarios y que sufren en ese sentido, un trato discriminatorio.

Considera que la política se está profesionalizando y además no existe un control de la dedicación del concejal de la oposición.

Sra. Sukia

Señala que la dedicación de concejal de la oposición es incontrolable y por ello solicita que el concejal a designar haga pública su agenda de trabajo con la dedicación que ejerce del cargo.

Sr. Aranburu

Responde al Sr. Alonso que no está de acuerdo en que los grupos minoritarios estén discriminados porque no tiene más que comprobar que en los órganos de entidades supramunicipales, su grupo EAJ-PNV no está representado a pesar de ser grupo mayoritario.

Sr. Dubreuil

Señala que al igual que se propone un control de la dedicación del concejal de la oposición, habría que exigir el mismo control para los cargos del equipo de gobierno con dedicación.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 1(ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak.


Abstentzioak: 1(ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak.

Bolinaga jaunak ez du bozkatu. .

Beraz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



5.- Azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeria deusezteko nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala onartzea.

Proposamena

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizatorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartea.

Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehentasunezko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Ordiziako udal gobernuak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria deusezteko nazioarteko eguna" dela-eta, Ordiziako Udal honek, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistatik gabeko gune gisa eraikitzearen ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

Aparteko une batean bizi gara, non osasun-egoerak foku guztiak bereganatu dituen eta gure bizimoduan eragin handia izan den. Egoera zaurgarrian dauden pertsonak bereziki kalteak izan dira, horien artean indarkeria matxistaren biktimak. Konfinamenduan emakumeek eutsi duten egoera modu bortitzagoan azaleratuko da gero, zantzu guztien arabera. Alde batetik, zerbitzu askok funtzionamendua aldatu dute, beste batzuk gelditu egin dira eta beste batzuek baliabideak desbideratu dituzte, zuzenean edo zeharka. Bestetik, eta aurreko krisietan gertatu zen bezala, estres sozial handiagoak eta gehiago sozialaren bizitzaren prekaritate orokorrak

5.- Aprobación de la declaración institucional para el 25 de noviembre, día internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres.

Propuesta

La crisis brutal que ha sacudido nuestra sociedad este año ha puesto en evidencia que la vida es vulnerable y que su cuidado debe ser nuestra prioridad. Algo que saben muy bien las miles de mujeres que sufren violencia machista, una pandemia que lleva demasiado tiempo entre nosotras y nosotros.


La violencia machista es una forma de violencia estructural, presente en todos los ámbitos y sectores, también en las instituciones. Es totalmente inaceptable y no tendremos en nuestro pueblo paz ni normalización mientras se siga asesinando y ejerciendo violencia hacia las mujeres por el hecho de ser mujeres. Hoy, como instituciones públicas, debemos asumir compromisos concretos, y dar absoluta prioridad a este problema social y colectivo, sin excusa.

Por eso, el equipo de gobierno del Ayuntamiento de Ordizia presenta la siguiente declaración institucional para su debate y posterior aprobación en Sesión Plenaria.

MOTIVO:

Con motivo del 25 de noviembre, "Día internacional de la eliminación de la violencia contra las mujeres", este Ayuntamiento de Ordizia, asume su responsabilidad en garantizar que nuestro país, nuestros territorios, nuestros pueblos, sean espacios libres de toda forma de violencia machista, y reitera su necesario compromiso político prioritario en la lucha contra todas las expresiones de la misma y sus causas estructurales así como contra la normalización que la perpetúa, teniendo como objetivo el necesario cambio del orden social patriarcal y el hacer realidad modelos de convivencia y relación entre mujeres y hombres basados en la justicia y la igualdad y en los que las mujeres se sientan libres.

Vivimos un momento excepcional, en el que la situación sanitaria ha acaparado todos los focos y nuestro modo de vida se ha visto profundamente afectado. Las personas en situación de vulnerabilidad se han visto especialmente afectadas, entre ellas las víctimas de violencia machista. Las situaciones que durante el confinamiento han sostenido las mujeres saldrán luego a la luz de manera más violenta, según todos los indicios. Por una parte, muchos servicios han visto alterado su funcionamiento, otros se han parado y otros han visto desviados recursos, de manera directa o indirecta. Por la otra, y como ya ocurrió en anteriores crisis, el mayor estrés social y la precariedad generalizada de la vida de las mayorías sociales va a traer un aumento de la violencia por parte de los agresores y una menor



erasotzaileen indarkeria areagotzea ekarriko du, eta emakumeek autonomia gutxiago izango dute erabakiak hartzeko.

Konfinamenduak, alde batetik, zerbitzuen prestazioan aldaketa bat eragin du, eta, bestetik, ondorio psikologikoak eta bestelakoak eragin ditzake emakume eta haurren, haien prozesuak eten egin baitira, eta, aldi berean, etxean indarkeria-mota eta -adierazpen desberdinak jasan baitituzte. Orain, lehentasunezkoa da jakitea, indarkeria matxistari dagokionez, nola eragiten dien krisi honek emakumeei, haien seme-alabei, eta sexu-genero sistemaren aurreko disidenteei, zer modu berri sortu diren, zer eredu aldatu diren, zer adierazpen areagotu diren... Litekeena da indarkeria matxistak beste bazterkeria- edo indarkeria-elementu batzuekin elkar eragiten duen kasu konplexuagoi erantzuteko beharra areagotzea. Izan ere, bikotekideek, bikotekide ohiek edo beste gizon batzuek emakumeengan zuzenean eragindako indarkeriaz gain, krisi honetan beste indarkeria-mota batzuk areagotuko dira, hala nola ekonomikoa. Erakunde gisa, gure betebeharra da emakume eta seme-alaba guztiak beren egoerarako arreta egokiena jasotzen dutela bermatzea.

Krisia ezin da aitzakia izan aurrekontuak izozteko edo murrizteko. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Eta, beti bezala, mugimendu eta aditu feministen eskutik egin behar dugu. Krisiaren lehen unetik ahotza altxatu duten horiek, konfinamenduan gatibu hartuta arrisku-egoeran zeuden emakumeei eta euren seme-alabei arreta emateko eskatu dute, eta behin deskonfinamendua iritsitakoan emakumeengan izango zituen ondorio bereziak begien bistatik ez galtzeko.

Gogoan dugu, halaber, aurten Euskal Herrian hil dituzten 4 emakumeak, denak konfinamenduaren hilabeteetan. Lanean jarraitu behar dugu, denok, horrelakorik berriro gerta ez dadin. Errealitate sozial larria da, denok ukitzen gaituena, ezin dugu eta ez dugu beste alde batera begiratu behar. Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan.


autonomía de las mujeres para tomar decisiones.

El confinamiento ha provocado, por una parte, una alteración en la prestación de los servicios y, por la otra, probables efectos psicológicos y de otro tipo en mujeres, niñas y niños que han visto interrumpidos sus procesos a la vez que sufrían diferentes formas y expresiones de violencia en casa. Ahora, es prioritario conocer de qué manera esta crisis ha afectado a las mujeres, sus hijas e hijos, y otras personas disidentes sexo-genéricas, en términos de violencia machista, qué nuevas formas han surgido, qué patrones han cambiado, qué expresiones han aumentado... Es probable que aumente la necesidad de atender casos más complejos en los que la violencia machista interactúa con otros elementos de exclusión o violencia. Porque además de la violencia ejercida por parejas, exparejas u otros hombres de forma directa sobre las mujeres, durante esta crisis aumentarán otro tipo de violencias como la económica. Es nuestro deber como instituciones garantizar que todas las mujeres y sus hijas e hijos reciben la atención más adecuada a su situación.

La crisis no puede ser excusa para congelar o recortar presupuestos. La pandemia de la violencia machista debe seguir siendo una prioridad y, por lo tanto, debemos comprometer todos los recursos que sean necesarios para seguir trabajando la prevención, adecuar la atención a la situación actual y no dejar de lado la reparación. Solo poniendo en marcha iniciativas integrales que actúen sobre la raíz del problema, se podrá conseguir avanzar en su erradicación.

Y, como siempre, debemos hacerlo de la mano del movimiento y de expertas feministas. Las mismas que desde el primer momento de la crisis han alzado la voz exigiendo que se atendiera a las mujeres y sus hijas e hijos que confinadas estaban en situación de peligro y que no se perdieran de vista los efectos diferenciados que tendría en las mujeres una vez llegara el desconfinamiento.

Recordamos, asimismo, las 4 mujeres que han sido asesinadas este año en Euskal Herria, todas durante los meses de confinamiento. Debemos seguir trabajando, todas, para que esto no vuelva a ocurrir. Es una grave realidad social que nos interpela a todas, no podemos ni debemos mirar a otro lado. Las instituciones tenemos una responsabilidad particular en ello.



Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

1.- Ordiziako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.- Ordiziako Udal honek konpromisoa hartzen du COVID19aren krisiak indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta, eta horiei aurre egiteko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzeko.

3.- Ordiziako Udal honek konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak/neurriak/zerbitzuak martxan jartzeko edo indartzeko.

4.- Horretarako, Ordiziako Udal honek ez du murrizketarik egingo 2021eko aurrekontuetan eta iaz hartutako konpromisoa berresten du ahalduz eskolarako 30.000 euro bideratzeko.

5.- Indarkeria matxistei erantzuteko koordinazio protokoloa egiteko konpromisoa hartzen du Ordiziako Udalak, herrialdeko/erkidegoko berdintasun instituzioekin batera eta egungo egoerara egokituta, mugimendu feministarekin, emakumeen kolektiboekin eta beste kolektibo sozial batzuekin batera modu parte-hartzailean.

6.- Ordiziako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorren sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID19ko krisiak eragin berezia izan duen esparruetan.

7.- Ordiziako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa

Por ello, en este día internacional contra la violencia machista, queremos dar a conocer de una manera firme nuestras reivindicaciones en favor de una Euskal Herria feminista, justa y equitativa, asumiendo, en la construcción de ese camino, los siguientes compromisos:

PROPUESTA:

1.- Este Ayuntamiento de Ordizia hace suyo el protocolo de respuesta a la violencia machista impulsado por la Marcha Mundial de las Mujeres.

2.- Este Ayuntamiento de Ordizia, se compromete a analizar los impactos que la crisis de la COVID19 hayan podido tener en las violencias machistas, en coordinación con las Diputaciones, Emakunde y el movimiento feminista y asociativo de mujeres, e identificar las acciones necesarias para hacerles frente.


3.- Este Ayuntamiento de Ordizia se compromete a poner en marcha o reforzar los programas / medidas / servicios que sean necesarios para responder adecuadamente a las necesidades identificadas en el punto anterior.

4.- Para ello, este Ayuntamiento de Ordizia no realizará ningún recorte en los presupuestos de igualdad del 2021 y mantiene el compromiso adquirido el año pasado de destinar 30.000 euros a la escuela de empoderamiento.

5.- Este Ayuntamiento de Ordizia se compromete a elaborar un Protocolo de Coordinación para responder a la violencia machista, en coordinación con las instituciones de igualdad de su herrialde/comunidad que deberá ajustarse a la situación actual y realizarse de forma participada junto con el movimiento feminista, colectivos de mujeres y otros colectivos sociales.

6.- Este Ayuntamiento de Ordizia emplaza a la Diputación Foral y Emakunde a no realizar ningún recorte en el presupuesto de 2021 y a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, particularmente en aquellos ámbitos considerados de especial impacto por efecto de la crisis de la COVID19.

7.- Este Ayuntamiento de Ordizia destinará recursos para que la población, y especialmente las mujeres, dispongan de información sobre los recursos existentes y fomentará el refuerzo (adaptado al contexto de crisis) y la correcta coordinación, trabajo en equipo e implementación de la red de los servicios destinados a la lucha contra la violencia machista al nivel territorial que



indartuko du (osasan krisiari egokituta), beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

8.- Ordiziako Udal honek pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sensibilizazio ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoerara egokituta.

9.- Ordiziako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako (eta egungo egoerari egokitutako) jabekuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorrean: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

10.- Ordiziako Udal honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako eta egungo egoerari egokitutako sensibilizazio eta formazio jarduera iraunkorrak abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baiezkotasuna onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

11.- Ordiziako Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko egungo egoerari egokitutako jarduera iraunkorrak martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. jasoz.

12.- Erakunde honetatik, hau da, Ordiziako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

13.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.

corresponda (incluyendo menores de edad e hijas e hijos de las víctimas).

8.- Este Ayuntamiento de Ordizia, apoyará las redes locales de cuidados que surgieron durante la pandemia así como, en general, el trabajo de los colectivos populares, para el refuerzo e impulso de acciones comunitarias de prevención y sensibilización en torno a las violencias machistas, adaptadas a la situación actual.


9.- Este Ayuntamiento de Ordizia, realizará de forma sostenida actividades de empoderamiento, adaptadas a la situación de crisis, y dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas en temas como las relaciones de pareja y sexo-afectivas, el amor romántico, las sexualidades libres, la autodefensa feminista etc.

10.- Este Ayuntamiento de Ordizia, pondrá en marcha de forma sostenida, y adaptada a la actual situación de crisis, actividades formativas / de sensibilización dirigidas a adolescentes y jóvenes para trabajar la educación afectivo sexual, desnaturalizar las múltiples expresiones de las violencias machistas, trabajar el consentimiento afirmativo y, en general, las relaciones en igualdad entre mujeres y hombres.

11.- Este Ayuntamiento de Ordizia, pondrá en marcha de forma sostenida, y adaptada a la actual situación de crisis, actividades para trabajar el derecho de las mujeres que han sufrido violencia machista a la reparación en sus múltiples aspectos, como, entre otros, homenajes, cineforums, acciones de visibilización como nombres de calles o jornadas, indemnizaciones, acciones de acompañamiento social, etc.

12.- Desde el Ayuntamiento de Ordizia reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista, como vía y herramienta principal para la construcción de una sociedad democrática sin violencias.

13.- Nos adherimos a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista para el día 25 de noviembre, y hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ellas.



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Aurkeztutako proposamena irekia dela esan du, eta talde politikoek ekarpenak egin ditzaketela.

Jimenez andrea

Indarkeria matxistaren arazoa zoritxarrez urteko egun guztietan gertatzen bada ere, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, adierazpena onartzea proposatzen dela esan du.

Esan du funtsezkoa dela emakumeak etengabe ahalduntzeko ekintzak sustatzea.

Hori dela eta, aurten ez da murriztuko sentsibilizazio-ekintzetarako eta -kanpainetarako aurrekontua, ezta udalaren parte-hartzea ere emakume taldeen deialdietan eta ahalduntze-eskolaren deialdietan ere.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde

Señala que la propuesta presentada está abierta a las aportaciones que en su caso quieran hacer los diferentes grupos políticos.

Sra. Jiménez

Dice que aunque el problema de la violencia machista se da desgraciadamente todos los días del año, con motivo del día internacional en contra de la violencia contra las mujeres, se propone la la aprobación de la declaración.

Dice que es fundamental apostar por promover acciones de empoderamiento de mujeres de forma continuada.

Por ello, este año no se reducirá el presupuesto para las acciones y campañas de sensibilización así como la participación del ayuntamientos en todos aquellos llamamientos de colectivos y grupos de mujeres y de la escuela de empoderamiento.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Aurrekontuaren aldaketa. Kreditu gehigarrien onarpena.


Proposamena

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko

6.- Modificación de presupuesto, aprobación de créditos adicionales.

Propuesta

Para hacer frente a las necesidades y obligaciones de los servicios municipales es necesario realizar una serie de gastos de forma inmediata. De hecho, el daño que se produciría en caso de retraso de los mismos afectaría notablemente a la calidad de los servicios. Sin embargo, según la ejecución presupuestaria, en las partidas de gastos



Ordiziako Udala

2020IOSB0015


krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

no se dispone de crédito suficiente para hacer frente a los citados gastos. En consecuencia, se propone la creación o, en su caso, el incremento de créditos según el detalle de la siguiente tabla:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 770.01.433.00.0294 2020	GOIEKI KAPITAL HANDITZEA	0,00	110.632,08	110.632,08
1 162.05.912.00.0311 2020	Pertsonal aseguruak	2.500,00	4.718,90	7.218,90
1 162.05.920.00.0322 2020	Pertsonal aseguruak. Admin.Orokor.	20.700,00	15.139,76	35.839,76
1 686.01.920.00.0322 2020	ERROLDA EGIRIAREN MAKINA	0,00	8.000,00	8.000,00
1 227.99.323.10.0111 2020	ALOTZA HAUR ESKOLA KONTRATUA	456.000,00	41.000,00	497.000,00
1 481.02.912.00.0311 2020	Talde Politikoei Transf.	29.000,00	9.160,00	38.160,00
1 226.13.135.00.0101 2020	COVID-19 GASTUAK	21.227,30	6.870,38	28.097,68
1 226.08.231.70.0110 2020	ATEAK IREKI	0,00	2.304,83	2.304,83
GUZTIRA		529.427,30	197.825,95	727.253,25

Kod.	Partida	Azalpena	Partidako kreditu erabilgarria	Bajaren zenbatekoa (aldaketak finantzaeko)	Partidan gelditzen de kreditua
d	1 226.07.231.60.0107 2020	DROG. PREBENTZ. JARDUERAK	13.1000,00	4.000,00	9.100,00
d	1 227.05.326.30.0117 2020	HAUR ETORKINENTZAKO EUSKARA SAIOAK	45.000,00	7.000,00	38.000,00
d	1 226.97.338.10.0121 2020	AUZOETAKO JAIK	15.000,00	15.000,00	0,00
d	1 226.98.338.10.0121 2020	HAINBAT GASTU. Zaindariaren jaiak	30.000,00	24.000,00	6.000,00
d	1 226.99.338.10.0121 2020	Zaindariaren jaiak	50.000,00	47.501,61	2.439,39
d	1 481.02.338.10.0121 2020	Musika: Beti Argi Musika Banda	8.644,50	8.644,50	0,00
d	1 481.03.338.10.0121 2020	Erraldoiak: Azen Erraldioen Lagunak E.	1.932,30	1.932,30	0,00
d	1 226.97.338.20.0122 2020	Jubilatuena bazkaria	12.000,00	12.000,00	0,00
d	1 226.98.338.20.0122 2020	EUSKAL JAIK. BESTE OSPAK.	20.000,00	7.000,00	13.000,00
d	1 226.99.338.20.0122 2020	EUSKAL JAIK. ASTEAZKENA	55.000,00	49.354,76	1.858,78
d	1 481.01.341.01.0162 2020	Klasika Marino Lejarreta	5.392,78	5.392,78	0,00
d	1 201.01.323.00.0111 2020	ARTXIBOA. ARANAKO LOKALAREN ALOKAIURUA	12.000,00	6.000,00	6.000,00
d	1 227.99.920.00.0322 2020	Zerbitzuak kanpoko itzulpenak	20.000,00	10.000,00	10.000
FINANTZAKETA GUZTIRA				197.825,95	

d) Kredituen balio gabetze baxa.



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Azaldu du baja emango zaiela exekutatu ez diren partidei edo, exekutatzen badira ere, osorik egingo ez dituzten partidei, eta baja horiek finantzatu direla aurreikusita ez dauden, sortu diren eta gauzatu behar diren inbertsioetarako eta gastuetarako beste partida batzuk.

Aldaketaren alderdi garrantzitsuenen eta beharrezko kreditu gehigarrien erreposoa egin du, bat datorrena Antolaketako Informazio Batzordean emandako azalpenarekin eta informazioarekin; beraz, ez da berriro aktan jaso.

Bolinaga jauna

Bizitza- eta istripu-aseguruaren partidari buruz galdetu du.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez aseguru hori Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatu dela, eta zenbatekoa urtebete eta 6 hilabeteko aldiari dagokiola, eta ez urtebetekoari, ohikoa den bezala. Hala ere, aldea handia dela esan du eta bere ustez igoera beste faktore batzuei ere badagokie.

Adierazi du gaia aztertzen ari direla eta, datu gehiago izan bezain laster, unean-unean jakinaraziko dutela.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde

Explica que se va a proceder a dar de baja aquellas partidas que no se van a ejecutar o que aunque se ejecuten, no lo van a hacer en su totalidad y con esas bajas se financiarán otras partidas para inversiones y gastos que no estando previstos, han surgido y que es preciso ejecutar.

Hace un repaso de los aspectos más importantes de la modificación y de los créditos adicionales necesarios, que coincide con la explicación e información que facilitó en la Comisión Informativa de organización por lo que no se procede a recoger nuevamente en acta.

Sr. Bolinaga

Pregunta sobre la partida del seguro de vida y accidentes.

Sr. Alcalde

Le responde que se ha realizado la contratación del citado seguro a través de la Central de Contratación de la Diputación Foral y que la cantidad corresponde al periodo de 1 año y 6 meses y no al de 1 año como es habitual. Aunque añade, la diferencia es importante y cree que la subida responde también a otros factores.

Señala que están analizando el tema y que en cuanto dispongan de más datos, informarán puntualmente.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)


Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



7.- Inbertsioak finantzatzeko mailegua kontratatzea.

Proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsaren %20ko murrizketak eragin zuzena izan du udalen aurreikuspen guztietan. Ordizian apirilean onartu ziren 2020ko aurrekontuek, murrizketa hori jasotzen bazuten ere, 2 miloi euroko mailegu bidezko sarrerak aurreikusten zituzten aurrekontuaren oreka bermatu ahal izateko.

COVID19 pandemiaren egoerak 2020 urteko diru sarrerak hankaz gora jarri ditu, eta Foru Funtsa ez ezik, gainerako diru-sarreretan ere, aurreikuspenak ez dira beteko.

Gastuetan ordea, aurtengo inbertsioek handiak izaten jarraitzen izaten dute, batez ere Majori-Altamirako inbertsioengatik.

7.- Contratación de préstamo para la financiación de inversiones.

Propuesta


La reducción de 20% del Fondo Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha afectado directamente a todas las previsiones de los ayuntamientos. Los presupuestos aprobados en abril incluían esta reducción, pero también preveían ingresos por préstamos de 2 millones de euros para garantizar el equilibrio presupuestario.

La situación de la pandemia COVI19 ha puesto supuesto un descalabro en los ingresos de 2020, y no solamente por la merma del Fondo Foral, sino porque en el resto de ingresos, tampoco se cumplirán las previsiones.

Sin embargo, en cuanto a gastos, las inversiones siguen siendo cuantiosas, sobre todo por las inversiones de Majori-Altamira.

INBERTSIOAK UDALA

1 625.01.933.00.0331 2020	4586	LARRIALDIKO ETXEAK	35.000,00
1 622.01.920.00.0322 2020	4580	ADMINISTRAZIO BULEGOAK EGOKITZEKO	10.000,00
1 626.01.920.00.0322 2020	4265	INFORMATIKA EKIPOA	28.000,00
1 686.01.920.00.0322 2020	4579	ERROLDA AGIRIAREN MAKINA	8.000,00
1 623.01.912.00.0322 2020	4596	BIDEO AKTA PLENO ARETOAN	50.000,00
1 623.02.337.10.0109 2020	4351	Inbertsioak Zuhazti	9.000,00
1 623.02.333.10.0133 2020	4550	BARRENAKO ALTZARIAK	600,00
1 683.02.333.10.0133 2020	4549	ARETO NAGUSIKO LED ILUMINAZIOA	3.000,00
1 622.01.323.20.0112 2020	4594	INBERTSIOAK URDANETA IKASTETXEA	90.000,00
1 622.02.326.40.0118 2020	4551	ESTALKIAREN OBRA HIZKUNTZA ESKOLA	20.000,00
1 628.01.332.10.0118 2020	3879	Liburuak	16.000,00
1 601.01.153.00.0221 2020	4610	Urdaneta eta Majori azpiegiturak berritz	150.199,82
1 601.06.153.00.0221 2020	3945	Zoru labaingarrientzat tratamendua	0,00
1 601.02.153.40.0224 2020	4267	Obra txikiak	36.000,00
1 623.04.153.40.0121 2020	4512	TOLDOAK	7.000,00
1 623.04.163.00.0281 2020	3885	TRESNAK	10.000,00
1 601.01.170.00.0251 2020	4592	BARATZE PARKEA HANDITZEA	11.000,00
1 623.02.170.00.0251 2020	4524	ERREKARA ZABORRA EZ ERORTZEKO SAREA	5.000,00
1 643.01.170.00.0251 2020	4525	AMIANTO LANKETA	5.000,00
1 629.01.171.10.0233 2020	4526	ITURRIA MAJORI PLAZAN	0,00
1 625.01.171.20.0234 2020	4217	ALTZARIAK OIANGU PARKEA	20.000,00
1 625.02.132.00.0201 2020	4500	UDALTZAINGOA SOFTWAREA	2.350,00
1 623.02.133.00.0202 2020	4506	TXIRRINDUENTZAKO APARKALEKUA	5.000,00
1 623.04.133.00.0202 2020	4505	KONOAK	2.000,00
1 624.01.133.00.0202 2020	4504	SEINALIZAZIOA EGUNERATU	10.000,00
1 623.04.135.00.0101 2020	4589	BEHARREZKO INBERTSIOAK BABES ZIBILA	5.000,00
1 642.01.151.00.0211 2020	4591	PLAN OROKORRAREN IDAZKETA	100.000,00
1 643.02.151.00.0211 2020	4590	BUZTUNTZA URBANIZAZIO PROIEKTUA ETA	75.020,00



713.169,82

Majori-Altamirako inbertsioen zati bat, 2019tik 2020ko aurrekontuan txertatutako partidetatik finantzatzen da, baina hemen jaso dira, azken batean, ordainketa horiek aurten egin behar direlako erabilgarri daukagun altxortegitik.

Aunque una parte de las inversiones de Majori-Altamira se financia de partidas incorporadas al presupuesto de 2020 del presupuesto de 2019, se incluyen aquí, puesto que los pagos han de realizarse este año desde los efectivos disponibles en la tesorería municipal actual.

INBERTSIOAK MAJORI-ALTAMIRA / INVERSIONES MAJORI-ALTAMIRA

1 622.01.342.00.1500 2019	4601	MAJORI OBRA ZUZENDARITZA	41.980,00
1 733.01.341.01.0161 2019	4497	Majori taberna ekipamendurako ekarpena	25.000,00
1 733.02.341.00.0161 2019	4603	MAJORI INBERTSIOAK 1. FASEA	769.972,15
1 733.01.341.00.0161 2019	4496	Majori Inbertsiotarako Ekarpene	80.951,94
			917.904,09

1 733.01.341.00.0161 2020	4367	MAJORI INBERTSIOETARAKO EKARPENA	464.000,00
1 733.02.341.00.0161 2020	4572	MAJORI OBRAREN GEHIKUNTZA	355.000,00
1 733.03.341.00.0161 2020	4570	IGERILEKUN PROIEKTUA MAJORI	68.900,00
1 733.04.341.00.0161 2020	4571	OBRA ZUZENDARITZA MAJORI	41.980,00
			929.880,00

INBERTSIOAK HERRI ANTZOKIA / INVERSIONES HERRI ANTZOKIA


1 731.01.333.20.0131 2020	3947	Herri Antzokiko inbertsioak	20.000,00
			20.000,00

Inbertsio horiez gain, 2020 urtean, COVID19aren pandemiak eraginda gastu berriak sortu dira, eta horiei gehitu behar zaizkie Ordizia Lantzen udal sozietateari, dituen maileguei aurre egiteko, urtean zehar egin behar izan zaizkion ekarpenak, eta baita Goieki garapen agentzian egin behar den kapital handitzea ere:

Además de estas inversiones, en el año 2020 han surgido nuevos gastos derivados de la pandemia de la COVID19, a los que hay que sumar las aportaciones que a lo largo del año se han tenido que realizar a sociedad Ordizia Lantzen para hacer frente a sus préstamos, así como la ampliación de capital a realizar en la agencia de desarrollo Goieki:

AURREIKUSI GABEKO GASTUAK / GASTOS SIN PREVISION

1 226.13.135.00.0101 2020	4606	COVID-19 gastuak	28.097,68
